

GI PUZKOA ETA EUROPAR BATASUNA



36. Informazio Buletina
2009ko Uztaila - Abuztua





NABARMENDU BEHARREKOA

Europako Batzordeko Lehendakariak hurrengo agintaldirako orientabide politikoak aurkeztu ditu

José Manuel Barroso jaunak Europako Batzordearen hurrengo agintaldirako orientabide politikoak aurkeztu ditu agiri batean. Barroso lehendakariak agiri horretan adierazi ditu, bere ustez datozen bost urteetan Batzordeak eta Parlamentuak egin beharreko lankidetzak politikoan oinarrian hartu behar diren helburuak eta ideiak.

Besteak beste, gaur egun indarrean dagoen Lisboako estrategia berrikusi beharko litzatekeela azpimarratzen du; zentzu horretan, 2020ko EBren ikuspegi integratu bat osatzeko beharrezkoak diren bateratasuna eta koordinazioa erraztuko dituen estrategia gisa erabiltzeko beharra azpimarratu du. Baina, horretarako, ezinbestekoa da: krisialdia arrakastaz gainditzea, hazkunde iraunkorra eta gizarte-kohesioa lortzeko iturri berriak sustatzea, herritarren Europa osatzeko lan handiagoa egitea eta Europa Globala osatzeko aro berri bat hastea.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/commission_barroso/president/pdf/press_20090903_ES.pdf

KPI-z harantzago: aurrerapenaren bilakaera mundu aldakor batean

Barne-produktu gordina (BPGd) da jarduera makroekonomikoa neurtzeko modurik ezagunena. BPGd, halaber, gizartearen eta, oro har, aurrerapenaren garapen orokorrekina lotuta dagoen zehar-adierazletzat jo izan da. Haatik, indizearen adiera eta xedea kontuan hartuta, ez du berdin balio eztabaida politikoaren barruko gai guztietarako. Zentzu horretan, BPGd indizeak ez du ingurumen-iraunkortasuna edo gizarte-inklusioa neurtzen eta horrelako mugak kontuan hartu behar dira politikei buruzko azterketa eta eztabaidetan erabiltzen denean.

Esanak esan, Batzordeak dituen helburu orokorren artean, adierazle osoagoak garatzeko helburua azpimarratu da. Adierazle osoagoak lortzean, ezagupen-oinarri fidagarriago bat lortuko da eta, horretan oinarrituta, eztabaida publikoak eta erabakiak hartzeko prozesuak hobetuko dira. Hori guztia lortzeko, jarraian adierazitako bost ekintzak proposatu dira: BPGd ingurumen- eta gizarte-adierazleekin osatzea, informazioa ia denbora errealean ematea erabakiak hartzeko, banaketari eta desberdintasunei buruzko informazio zehatzagoa ematea, garapen iraunkorrekina lotutako adierazleen taula europar bat garatzea eta kontu nazionalak gizarte- eta ingurumen-gaietara irekitzea.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0433:FIN:ES:PDF>



KOHESIO-POLITIKA

Eskualde sortzaileak eta berritzaileak

Ekonomia- eta gizarte-kohesioaren egoerari buruzko seigarren txostenak sorkuntza eta berrikuntza ditu ardatz. Izan ere, biek benetan lagun diezaioke EBri gaur egungo krisialdi ekonomikotik azkarrago eta indartsuago irteten. Halaber, sorkuntzaren eta berrikuntzaren eskualde-mailako garrantzia azpimarratzen du txostenak.

Nagusiki, eskualdeetan sorkuntza eta berrikuntza susta dezaketen faktoreak erakutsi nahi ditu txostenak, eskualdeak duen garapen-maila edozein delarik. Txostenak berrikuntza teknologikoa eta hainbat esparrutako aldagai gehiago barne hartzen ditu, hala nola gizarte-berrikuntza, berrikuntza artistikoa, kultur berrikuntza, prozesuena eta zerbitzuena.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0295:FIN:ES:PDF>

Eskualde metropolitarrak Europar Batasunean

Refional Focus aldizkariak 258 eskualde metropolitarrak aukeratu ditu (250.000 biztanletik gorako hiri-aglomerazioak); ondoren, guztiak aztertu eta EB osoan duten eragina edo garrantzia ikusi du. Oro har, azken urteetan egindako ekarpenak (biztanleak eta BPGd) hazkunde handirik ezagutu ez duela erakusten du txostenak.

Haatik, EBra sartu diren azken herrialdeetan ekonomia-jarduerak eskualde metropolitarrerantz bideratzen joan dira, batez ere herrialdeko hiriburua kokatuta dagoen eskualderantz.

Aztertu diren eskualde metropolitarraren artean dago Gipuzkoa.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/focus/2009_01_metropolitan.pdf

Pawel Samecki, Eskualde Politikako Komisario berria

Danuta Hübner-ek dimisioa aurkeztu ondoren (Europako Parlamenturako aukeratu dute), Poloniako Gobernuak Pawel Samecki izendatu du komisario izateko, José Manuel Barroso Batzordeko lehendakariarekin izendapena adostu ondoren.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/commission_barroso/president/pdf/press_20090703_en_2.pdf



KOMUNITATEKO POLITIKAK

EB-ko berrikuntza politikaren berrikuspena

Berrikuntzaren adierazleek garbi adierazten dute Europan daudela mundu osoko herrialde eta eskualde berri zaileenetako batzuk. Herrialde eta eskualde horiek dituzten ezaugarri komunak aztertzean, eredu harrigarri bat ikus daiteke. Hezkuntza, prestakuntza eta etengabeko ikaskuntzaren batez bestekoa baino gehiago gastatzen dute normalean, I+G esparruan BPGd-ren gastu-portzentaje altuena dute eta sektore publikoan eta pribatuan produktu eta teknologia berriak asimilatzen laguntzeko bitartekoak dituzte.

Dagoeneko aurrerapauso handiak eman badira ere, EBko hezkuntza-sistemen gaitasuna hobetzeko lan egiten jarraitu behar da oraindik. Ezagutzaren-gizarte berri zaile eta arin bat lortu behar da eta, horrekin batera, enpresek, hezkuntzak eta ikerketak osatzen duten triangelua indartu.

Eta EBko berrikuntza-sistemak zailtasun eta gabezia handiak ditu oraindik; gauzak horrela, berrikuntzan egiten den inbertsio pribatua saritzeko eta pizgarriak emateko oztopoak izaten ditu merkatuak; hortaz, EBk duen berrikuntza-sistema gure lehiakide nagusia baino ahulagoa dela esan behar da.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0442:FIN:ES:PDF>

Berregituraketa neurriak finantza sektorean eta estatuko laguntzei buruzko arauak

Gaur egungo krisialdian eta estatuko laguntzei buruzko araei helduta, finantza-sektorearen bideragarritasuna berreskuratzeko beharri eta sektorea berregituratzeko neurrien ebaluazioari buruzko Komunikazioa landu da, finantza-sektoreak bizi duen krisialdi itzelari erantzuteko, eta beraren ezarpena mugatu egingo da denboran.

Honako alderdi hauek barne hartu dira: bideragarritasuna epe luzera berrezartzea, onuradunaren ekarpen propioa (karga-banaketa), lehiaketaren faltsutzea mugatzea eta banku-sektore lehiakor bat eta gainbegiratze eta prozedura egokiak ziurtatzea; halaber, berregituraketa-planerako eduki-taula orientagarri bat osatu behar da.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2009:195:0009:0020:ES:PDF>



Gazteen osasunaren aldeko ekimena

Europako Batzordearen ekimen honen helburua da, gazteek aktiboki parte hartzea euren osasuna hobetzen; izan ere, haurtzaroan eta gaztaroan erabakitzen da behin betiko, osasunarekin lotutako gaien aurrean bizitzan izango den jarrera.

Horrela, gaztetan jokaera osasungarriak jarraitzeak, aurrerago gaixotasun kronikoak saihesteko balio dezake, eta osasun ona edukitzeak ekoizpen-bizitza arrakastatsua ziurtatzen laguntzen du nabarmenki.

Dagoeneko egin da ekimena osatzen duten sei atalen lehiaketa (argazkiak, bideoklipak edo marrazkiak): osasunaren komunikazioa, ingurune osasungarria sortzea, mugarik eza: arriskuen prebentzioaren ikaskuntza, osasuna lan-merkatuan, hezkuntza osasuna hobetzeko bitarteko gisa eta osasuna hobetzea gizarte- eta hezkuntza-esparrua eta ikaskuntza ez-formala baliatuz.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/health-eu/youth/index_es.htm





e-LIBURUTEGIA

Europako hezkuntzaren funtsezko kopuruak

Europako hezkuntzaren funtsezko kopuruak 2009 txostena aurkeztu du Europako Batzordeak (Eurydice-k landua). Aipatu txostenean 121 adierazleren azterketa egiten da eta Europako 31 herrialdeko irakaskuntza-sistemen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko ikuspegi integratua eskaintzen da.

Ondoren aipatutako funtsezko mezuak aipatzen ditu: a) demografiak izango duen bilakaeraren ondorioz, murriztu egingo da derrigorrezko irakaskuntzako ikasle kopurua eta areagotu egingo da, aitzitik, erretiroa hartzen duten irakasleena, b) derrigorrezko eskolatzea luzatuko da eta goimailako irakaskuntzan egiten den eskolatzea izugarri zabalduko da, eta c) ikastetxeak gero eta autonomoagoak izango dira eta kanpo-ebaluazio gehiago egingo dira, nahiz eta politika desberdinak jarraituko dituzten emaitzak ezagutzera emateko.

Informazio gehiago (frantsesez/ingelesez):

http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/key_data_en.php

Automozio sektorea europar

Europako automozio-industriaren egoera erakusten du Europako Batzordeak aurkeztutako txosten honek: azken urteetan eragina izan duten aldaketen berri ematen da txostenean eta datozen urteei begira garapena lortzeko aukerak azaltzen dira, batez ere enpleguarekin eta lanbide-kompetentziekin erlazioan.

Bi eszenategi aurkezten dira eta azpisektore eta lanbide-kualifikazio garrantzitsuenetan bakoitzak duen eragina mugatzen da. Era berean, hainbat gomendio egiten dira eszenategi baikorrenekin lotuta.

Informazio gehiago (ingelesez/frantsesez):

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=es&catId=89&newsId=585&furtherNews=yes>

Kulturak sorkuntzan duen inpaktua

Europako Batzordeak aurkeztutako txosten honetan ikuspegi zabal eta zehatz batetik aztertzen dira kultura eta sorkuntzaren arteko erlazioak, sorkuntza, ekonomia eta industria oinarrian dituen kulturaren inpaktua, kulturak gizarte-esparruan duen eragina eta sorkuntza sustatzeko ikastetxeei eta prestakuntzari dagokien funtzioa.

Bestalde, berrikuntzarekin eta sorkuntzarekin lotuta European garatzen diren politiken berrikuspena egiten da, European sorkuntza sustatzeko beharrezkoak diren baldintzak zehazten dira eta hainbat gomendio ematen da Europa Sortzailea lortzera bidean politika publikoak garatzeko.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/culture/key-documents/doc/study_impact_cult_creativity_06_09.pdf

**Liburu berdea: gazteen prestakuntzan mugikortasuna sustatzea**

Mugikortasuna prestakuntzan, hau da, nazioz haraindiko mugikortasuna kompetentzia berriak lortzeko. Horixe da, hain zuzen ere, etorkizunean enplegarritasuna eta garapen pertsonala hobetzeko modurik garrantzitsuenetako bat, batez ere gazteei dagokienez.

Ilido horretan, Europako Batzardeak Liburu Berde bat aurkeztu du. Gaiari interesa duten aldeen artean eta, oro har, gizartean eztabaida piztea bilatzen da, mugikortasunak duen garrantzia eta, batez ere, gazteei mugikortasuna eskaintzeak duen garrantzia azpimarratzeko.

Modu berean, on line galdeketa ireki bat landu da, parte hartzeko tresna gisa: kontsulta egiteko epea abenduaren 15ean amaituko da.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2009:0329:FIN:ES:PDF>

Parte-hartzea:

http://ec.europa.eu/dgs/education_culture/consult/index_es.html





ADIERAZLEAK

Lan merkatuko adierazleak 2008

Eurostat-en oharra Europar Batasuneko eta bertako estatukideetako lan-merkatuko urteko adierazle nagusiak aurkezten ditu.

Aztertutako adierazle nagusien artean (Lisboako Estrategiaren helburuak) enplegu-tasari erreparatzen bazaio (15-64 urteko pertsonak), EB-27k % 65,9ko batez bestekoa lortu du eta zortzi estatukidek, gainera, Estrategiaren helburua betetzea lortu dute (% 70era iristea, hain zuzen ere). Aipatzekoak dira Danimarkak, Holandak eta Suediak lortutako tasa altuak (% 75 inguru).

Gipuzkoari dagokionez, % 70eko betetze-tasa lortu da (2008ko batez bestekoa).

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-QA-09-033/EN/KS-QA-09-033-EN.PDF

Eskualde mailako espezializazioa garraio zerbitzuetan

Garraio-zerbitzuek % 6,9ko ekarpena egiten dute Europar Batasuneko enplegura (sektore pribatu ez-finantzarioa). Sektoroko lau estatistika-atalen artean (lurrekoa, airekoa, uretatik egiten dena eta zerbitzu osagarriak) lurreko garraioak egiten duen ekarpena azpimarratu behar da: guztizko enpleguaren erdia baino gehiago.

Europako eskualdeei dagokienez, azpimarratzekoa da Finlandiako Aland eskualdeak erakutsitako espezializazio-maila altua; atzetik ditu Bratislava eta Mazowieckie.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-09-065/EN/KS-SF-09-065-EN.PDF

Europako biztanleria, ekonomia krisia eta enplegua

Eurobarometroak egindako inkestak erakusten duenez (maiatza-ekaina bitartean egindako inkesta), Europako biztanleen % 61ek uste du ekonomia-krisiak enpleguan duen eragina areagotu egingo dela oraindik ere; eta heren bat oso kezkatuta agertu da krisialdiaren ondorioz enplegua galtzeko arriskua dela eta.

Enplegu berri baten bila hasi beharko balute, inkestan parte hartu duten pertsona gehienek enplegu mota bera eta leku berean aukeratuko lukete; beste batzuk ikuspegi zabalagoa dute eta lekuz aldatzeko aukeraren aurrean irekita daude.

Azkenik, lanik ez duen lau europarren artean bat, gutxi gorabehera, edozein enplegu onartzeko prest agertu da.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_316_sum_en.pdf